# ZER DAKIZU ASAJERRI BURUZ? kanpaina

asajer-k idatzia
Asteartea, 2021(e)ko azaroa(r)en 16-(e)an 08:42etan - Azken eguneratzea Asteartea, 2021(e)ko azaroa(r)en 16-(e)an 11:28etan

## ZER DAKIZU ASAJERRI BURUZ? kanpaina

asajer-k idatzia
Asteartea, 2021(e)ko azaroa(r)en 16-(e)an 08:42etan - Azken eguneratzea Asteartea, 2021(e)ko azaroa(r)en 16-(e)an 11:28etan



## “ASAJER, PERTSONEKIN”

Eragindako pertsonengana iristea, instituzio ezberdinetara, ikastetxeetara, gizarte-kolektiboetara, herritarrengana oro har, eta haiek gu ezagutu ahal izatea balio garrantzitsua duen helburua da.

Kanpainaren XEDEA **Elkartea EZAGUTARAZTEA, proiekzio handiagoa eman eta egiten duen lana hedatzea da** .

Honatx haren HELBURUAK:

- Elkartearen eta garatzen duen lanaren inguruan **INFORMAZIO EGUNERATUA HELARAZTEA** , baliabideak **IKUSGAITASUN** handiagoa izan dezan.

- Hezkuntzaren esparruan eta, nolabait, Elkarteak burutzen duen lanarekin lotura izan dezaketen ikerketak burutzen dituzten zentroetan (Gizarte Lana, Gizarte Integrazioa, Gizarte Hezkuntza) Elkartearen eta garatzen duen lanaren **BERRI EMATEA** baliabidea gehiago ezagut dadin.
- Baliabidea Gasteizko ikastetxeetako orientatzaileei zein Gurasoen Elkarteei **EZAGUTARAZTEA** . Gaiaren inguruko kontsultak egiteko orduan eta ausazko jokoarekin eta harekin lotutako gaiaren inguruan, zein beste jokabide batzuen inguruan (erosketak, teknologiak, etab.), informazio-jarduerak egitea aztertzeko garaian Elkartea erreferente gisa izatea da asmoa.

Kanpainaren hedapenerako hainbat material prestatu dira (kartela, flyerra). Horiek Elkartearen webgunean aurkitu eta deskarga daitezke: www.asajer.org

Halaber, helbide elektronikora idatziz ere eska daitezke: asajer@telefonica.net

**PDF DESKARGA**